

## GAYARRE-ZALEAK

ERKOA izena dauan talde batek Erti-giroko gauzai garrantzi berezia, zor jaken lakoa, emoteko guraria dauka. Orain Gayarre'tar Julian abeslari gorengoaren inguruko gaiak barriztatu ta zaindu nai dabez.

Erronkari'ko urretxindorrek erabilli ebazan lanabesak dira: Operetan, esaterako Lukrezia Borgiatarra, La Favorita, El trovador, Rigoletto eta olakoak abestu ebazenean, eta bere aldiko margolariak egin eutsoezan margozki-irudiak be or sartzen dira.


Orrez gaifiera, beste betegarri ta osagarri asko ebazan gure abeslariak bere zeregiñetan: ule-izunak, oiñetakoak, ezpatak, burdin-bitxi ederrak...

ERKOA bazkidekoak diñoenez, Naparroa'ko Jaurlaritzak eta Erronkari'ko udalak mezu eta lanbide on onartu dabe eta emoten jako Julian Gayarre ospetsuaren eriotza-oroipenari zor jakon garrantzia, eungarren urtean.

Gayarre abeslari ospetsuaren Erakustetxeari ospea emon gura jako, abeslariaren nortasuna disdiratsu geratu daiten eta ikertzaille ta ikuslariak sei eungintzazko jantzi eder ikusi al izango dabez. Jantzi onek len izan eben itxura eta orain daukena alkarren parean ipiñi ezker, aldakuntza ikagarria izan dabe. Egiz diño, eta sinisgarri dira, Gayarre abeslariaren soiñekoakaz ardura aundiz eta txeraz lan egin bear izan dala: loiak alden-du, eun oial eta urrezko orratz erabilli bear izan dira, eta gero lan berezia giza-irudietan.

Eta orrelan, gure zeregiña amaitu dala uste dozue?

Ez oraindiño. Aurrerantzean alboko lanak agertzen jakuz, metalezko gauzak garbitzea, esaterako, eta gero dana zaintzeko aterpe egokia zaindu.



Esan dogun guztia ERKOA'ko batek azaldu dausku eta berak erakutsi dausku zati bakoitxa, oraindiño lan-tegian itxaroten dagozenak be bai, Erronkari'ko erakus-tetxera eroateko zain.

Ba-dakizue zenbat Iauerleko eralgi diran erakustoki on egiteko? Oraingoz 17 milloi. Ori Naparroa'ko Jaurlaritzak, Erronkari'ko udalak eta abeslariaren oiñordekoak lagunduta.

Julian Gayarre-ren gauzak ikusteko aukerea Bilbo'n be izango da.

EGILUZE'k